

27. IPUINA: AXULAR ETA DEABRUA

Deabruarekin eskolatua zen hura. Ez duzue behin ere aditu istorio hori? Aditu duzu, ez?

A ver, kontatu, kontatu...

Eta, eskolatu zen baten arimaren alde eta hiru, hiru baziren. Sartu ziren leizean. Eta denak kalkuluan ari ziren, batek arima utzi behar zuen, ja eskola aski ikasia zuten eta ez baitzen zozoena Axular. Eta, hark pentsatu zuen: "Bo, aterako gaituk ilargi zuria den egun batez, ilargiak, eta, leizeko argia... argitzen zuen egun batez. Eta:

- Nola gara?

Eta:

- Nola?
- Bueno, ni joanen nauk, ni aterako nauk azkenik. Zuek eskapa zaitezte.

Eta bertzeak eskapatu ziren eta deabrua han zen bai, erne aski begira. Erran zion Axularrek:

- Lot hadi nire gibelean horri.

Eta ez dakizu nor zuen gibelean? Bere itzala.

Itzala. Bai.

Eta, deabrua gelditu zen itzalarekin eta Axular eskapatu.

Eta geroztik Axular itzalik gabe zen, Axular apeza.

Hori poliki... poliki pentsatua da, e?